Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

| 2020KO IRAILAREN 29AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA. | ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 29 DE SEPTIEMBRE DE 2020. |
|---|---|
| ============================== | ============================== |
| **BERTARATUAK** | **ASISTENTES** |
| **ALKATEA** | **ALCALDESA** |

Amaia Aguirre Muñoa and.

| **ALKATEORDEAK** | **VICEALCALDESAS Y VICEALCALDE** |
|---|---|

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Carmen Diaz Perez (PSE-EE)
Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ-PNV)
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ-PNV)

| **ZINEGOTZIAK** | **C O N C E J A L E S** |
|---|---|

Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Joseba Arregi Martínez (EAJ/PNV).
Iñigo Urkitza Yañez (EAJ/PNV).
Carlos Sergio Achotegui (EAJ/PNV)
Janire Ocio Celada (EAJ/PNV)
Ainhoa Galduroz Alvarez (EAJ/PNV)
Arantzazu Rica Alvarez (EAJ/PNV)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP).
Francisco J. Elorza Hormaeche (PP).
Gonzalo Zorrilla-Lequerica Pañeda (PP)
Alicia González Del Valle Francos (PP)
Natalia Aranduy Zuazagoitia (PP)
Nerea Guijarrubia Garzia (EH BILDU).
Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)
Itxaso Maseda Saratxo (EH BILDU)
Gonzalo Ayo Jimenez (PSE-EE)
Asunción Olaeta Perez De Mendiola (PSE-EE)
Paula Amieva Clemente (E. PODEMOS)
Carolina Uribe de la Espriella (E. PODEMOS)

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

| IDAZKARI NAGUSIA | SECRETARIO GENERAL |
|---|---|

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkatea Amaia Aguirre Muñoa andrea dela, egun horretako goizeko bederatzi eta erdietan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontu-hartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia de la Alcaldesa, Amaia Aguirre Muñoa, se reunió a las nueve treinta horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

La Alcaldesa, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

## EBAZPEN ATALA

## PARTE RESOLUTIVA

### 105.- GETXOKO UDALBALTZAK 2020KO UZTAILAREN 30EAN EGINDAKO AURREKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.

2020ko uztailaren 30ean Getxoko Udalbatzak egindako ohiko bilkuraren aktaren laburpena aho batez onestea.

### 105- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 30 DE JULIO DE 2020.

Se aprueba por unanimidad el extracto del acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 30 de julio 2020.

## ANTOLAKUNTZA ETA KONTUAK

### 106.- 2019.URTEKO KONTU OROKORRAREN ONESTEA.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

## ORGANIZACIÓN Y CUENTAS

### 106.- APROBACIÓN DE LA CUENTA GENERAL 2019.

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

gehiengoz erabaki da:

Getxoko Udalaren kontu orokorra onestea, 2019. urteko ekitaldiari dagokiona eta honako entitateen kontuek osatzen dutena: Udalarenak berarenak, lau erakunde autonomoenek eta Kirol Portuko El Abra S.A Elkartearenak.

Kontu orokorra eta haren edukiak Herri Kontuen Euskal Epaitegiari igortzea, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru-Arauak 63. artikuluko 5. paragrafoan dioenarekin bat etorriz.

por mayoría se acuerda:

Aprobar la Cuenta General del Ayuntamiento de Getxo, integrada por la de la propia entidad, las de los cuatro Organismos Autónomos y la de la Sociedad Puerto Deportivo El Abra-Getxo S.A. correspondiente al ejercicio 2019.

Rendir la Cuenta General, junto a todo su contenido, al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas en los términos que establece el apartado 5 del artículo 63 de la Norma Foral 10/2003, de 2 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Bizkaia.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

Ignacio Uriarte
Eduardo Andrade
Keltse Eiguren

**BOZKETA/VOTACIÓN**

BAI/SI: 14 (PNV, PSE-EE)
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 10 (PP, EH Bildu, Elkarrekin Podemos

**107.- UDAL HERRI JABARIA ATZEMATEAGATIKO TASAREN ZERGA-ORDENANTZAREN ALDARAZPENA BEHIN-BEHINEAN ONESTEA.**

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, aho batez erabaki da:

LEHENENGOA.- Behin-behinean onetsiko da udal jabari publikoa atzemateari dagokion tasa arautzen duen zerga-ordenantzaren aldarazpena, eranskin gisa bidali den dokumentuan (aldarazpen-proiektua) jasotako terminoetan. Aldaketa horren ondorioz, xedapen iragankor bat ezarri behar da, honako hau dioena:

**107.- APROBACIÓN PROVISIONAL DE MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LA TASA POR OCUPACIÓN DEL DOMINIO PÚBLICO MUNICIPAL.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas por unanimidad se acuerda:

PRIMERO.- Aprobar con carácter provisional la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora de la tasa por ocupación del dominio público municipal, en los términos del documento que se adjunta como anexo (Proyecto de modificación). Dicha modificación supone establecer una Disposición Transitoria con el siguiente

tenor literal:

"2021eko ekitaldian, E) "bide publikoko terrazak" epigrafearen oinarrizko tarifa 13 eurokoa izango da m2-ko edo zatiki bakoitzeko. "

"Durante el ejercicio 2021 la tarifa base del Epígrafe E) "Terrazas en vía pública" será de 13 euros por m2 o fracción. "

BIGARRENA.- Aldarazi den testuak, behin betiko onetsi ondorik, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

SEGUNDO.- El texto modificado, una vez definitivamente aprobado, surtirá efectos el día 1 de enero de 2021.

HIRUGARRENA.- Zerga ordenantzaren aldaketaren behin-behineko onespena udaletxe honetako iragarki oholean 30 egunez jartzeko aginduko da. Hala, interesdunek espedientea aztertu eta komenigarritzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

TERCERO.- Ordenar la publicación de la aprobación provisional de la modificación de la Ordenanza Fiscal afectada en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento durante el plazo de 30 días hábiles, a fin de que los interesados puedan examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas.

Jendaurreko erakustaldia BAOn iragarriko da, baita lurralde historiko honetan zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean ere.

Anunciar dicha exposición al público en el B.O.B y en uno de los diarios de mayor difusión de este Territorio Histórico.

LAUGARRENA.- Erreklamaziorik aurkeztu ez bada, behin betikotzat jotzea ordenantza aldatzeko behin-behineko erabakia.

CUARTO.- Elevar a definitivo el acuerdo provisional de modificación de la Ordenanza si no se han presentado reclamaciones.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

Ignacio Uriarte
Paula Amieva
Carmen Díaz
Ibon Rodríguez
Gonzalo Zorrilla-Lequerica
Keltse Eiguren

**BOZKETA/VOTACIÓN**

Aho batez / Unanimidad

**108.- "RKE KAFETEGIA" IZENEKO UDAL-ERAIKINA USTIATZEKO ZERBITZUAREN EMAKIDAREN KONTRATUA ADJUDIKATZEA.**

**108.- ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO DE CONCESIÓN DE SERVICIO DE EXPLOTACIÓN DEL EDIFICIO MUNICIPAL DENOMINADO "RKE KAFETEGIA".**



Getxo
Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

Getxo UDALA · AYUNTAMIENTO
Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz erabaki da:

EGITATEZKO AURREKARIAK

LEHENENGOA.- Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak, 2020ko martxoaren 18an egindako ezohiko eta premiazko bilkuran, 2020-03-18ko 37 erabakia hartu zen; horren bidez, baimena eman zuen prozedura irekiaren bidez "RKE KAFETEGIA" IZENEKO UDAL-ERAIKINA USTIATZEKO ZERBITZUAREN EMAKIDA adjudikatzeko arauzko izapideak hasteko. Adjudikaziodunak ordaindu behar duen urteroko kanona bere proposamen ekonomikoan ageri dena izango da, kontuan izanik ez direla onargarriak izango gutxienez 5.100 euro betetzen ez dituzten proposamenak (zenbatekoa ez dago BEZaren mende). Gutxieneko hileroko kanona 425 eurokoa izango da hilean (zenbatekoa ez dago BEZaren mende).

Kontratu honen iraupena 4 (LAU) URTEKOA izango da administrazio-kontratua sinatzen den unetik aurrera zenbatuta. Adjudikaziodunak eskatzen badu eta udalak egokitzat jotzen badu, kontratua behin luzatu ahal izango da 4 (LAU) urtez. Adjudikaziodunak kontratua amaitu baino gutxienez 6 (sei) hilabete lehenago eskatu beharko du luzapena, eta udalak kontratua amaitu baino 2 (bi) hilabete lehenago onartu beharko du.

Kontratuaren iraupena eta luzapen posiblea espedientean jaso den txosten ekonomiko administratiboa kontuan hartuta kalkulatu dira.

Epea beteta, Getxoko Udalarentzat doan izango dira emandako

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas por mayoría se acuerda:

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- Por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo, en sesión extraordinaria y urgente celebrada el 18 de marzo de 2020, se adoptó el acuerdo nº 37, de fecha 18/03/2020, autorizando el inicio de la tramitación reglamentaria para la adjudicación, mediante Procedimiento Abierto, del contrato de CONCESIÓN DE SERVICIO DE EXPLOTACIÓN DEL EDIFICIO MUNICIPAL DENOMINADO "RKE KAFETEGIA". El canon anual a abonar por el adjudicatario será el recogido en su proposición económica, teniendo en cuenta que no serán admisibles las proposiciones que no cubran como mínimo la cantidad de 5.100 euros (no sujeto a I.V.A.). El canon mensual mínimo será de 425 euros/mes (no sujeto a I.V.A.).

La duración del presente contrato será de 4 (CUATRO) AÑOS desde la fecha de formalización del contrato administrativo. En caso de que el adjudicatario lo solicite y siempre que el Ayuntamiento lo considere oportuno podrá prorrogarse el contrato por una única prórroga de 4 (CUATRO) años. El adjudicatario deberá solicitar la prórroga del contrato con una antelación mínima de 6 (seis) meses antes de la finalización del contrato y el Ayuntamiento acordar la misma 2 (dos) meses antes de terminar el contrato.

La duración del contrato y su posible prórroga se ha calculado teniendo en cuenta el informe económico-administrativo que consta en el expediente.

Una vez cumplido el plazo revertirán gratuitamente al Ayuntamiento de

ondasunaren jabari osoa eta egindako obrak, eraikuntzak eta instalazioak.

Getxo el pleno dominio del bien concedido así como las obras, construcciones e instalaciones realizadas.

Kontraturako kalkulatu den balioa, lau urtez luzatzeko aukera barne, 4.388.641,38 eurokoa da.

El valor estimado del contrato asciende a 4.388.641,38 euros, teniendo en cuenta una posible prórroga de cuatro años.

BIGARRENA.- Dagokion lizitazio-iragarkia udalaren kontratatzailearen profilean argitaratu zen, bai eta Eusko Jaurlaritzaren kontratazio plataforman ere, 2020-05-25ean.

SEGUNDO.- El preceptivo anuncio de licitación es publicado en el Perfil del Contratante del Ayuntamiento, así como en la Plataforma de Contratación del Gobierno Vasco, con fecha 25/05/2020.

HIRUGARRENA.- 2020-06-24an, Ondare, Kontratazio eta Erosketako arduradunak,Udalbatzari Laguntzeko Kontratazio Mahaiak 2020-02-21ean hartutako erabakiaren bitartez, ekitaldi publikoan ireki ziren aurkeztutako lau proposamenen dokumentazio orokorra zuten gutun-azalak. Honako hauek, hain zuen ere:

1.- TXALAPARTA BERRIA – LA BRASA DE ABDEL – SALAH FARROUKH, UTE.
2.- PLASENCIA VINTAGE SL.
3.- GORKA TAVERN SL.
4.- NÁUTICO BERRIA SLU.

TERCERO.- Con fecha 24/06/2020, por la Responsable de Patrimonio, Contratación y Compras, en virtud de delegación efectuada por Acuerdo de Mesa de Contratación Asistente del Pleno de fecha 21/02/2020, se procedió, en acto público, a la apertura de los sobres que contenían la Documentación General de las cuatro proposiciones presentadas, a saber:

1.- TXALAPARTA BERRIA – LA BRASA DE ABDEL – SALAH FARROUKH, UTE.
2.- PLASENCIA VINTAGE, S.L.
3.- GORKA TAVERN, S.L.
4.- NÁUTICO BERRIA, S.L.U.

Aurkeztutako eskaintza guztien dokumentazioan antzemandako akatsak eta omisioak ikusita, 3 egun balioduneko epea eman zitzaien enpresa lizitatzaileei, aurkeztutako dokumentazioa zuzentzeko edo osatzeko; halaxe egin zuten horretarako emandako epearen barruan.

A la vista de los defectos y omisiones detectados en la documentación de todas las ofertas presentadas se le dio a las empresas licitadoras un plazo de 3 días hábiles para que subsanasen o corrigiesen la documentación presentada, cosa que hicieron dentro del plazo conferido al efecto.

LAUGARRENA.- Udalbatzari Laguntzeko Kontratazio Mahaiak, 2020-07-07an, aurkeztutako eskaintzen AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEN gutun-azalak ireki dituzten, eta hauexek izan dira emaitzak:

CUARTO.- Por la Mesa de Contratación Asistente del Pleno de fecha 07/07/2020 se procedió a la apertura de los sobres que contenían los CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA AUTOMÁTICA de las ofertas presentadas con los siguientes resultados:



Getxo UDALA · AYUNTAMIENTO
Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

| ***LIZITATZAILEAK***<br>**LICITADORES** | ***HILEROKO KANONA***<br>***Urtean 5.100 euro edo gehiago (zenbatekoa ez dago BEZaren mende)***<br>***Hilean 425 euro edo gehiago (zenbatekoa ez dago BEZaren mende)***<br>***95 puntu, gehienez***<br><br>**CANON MENSUAL**<br>**Igual o superior a 5.100.-€/año (no sujeto a I.V.A.)**<br>**Igual o superior a 425.-€/mes (no sujeto a I.V.A.)**<br>**Máximo 95 puntos** | ***"RKE KAFETEGIA" DELAKOAREN USTIAPEN-MARKAREN IRUDIA HARTZEKO KONPROMISOA***<br>***5 puntu, gehienez***<br><br>**COMPROMISO ADOPCIÓN IMAGEN DE MARCA DE EXPLOTACIÓN DEL "RKE KAFETEGIA"**<br>**Máximo 5 puntos** |
|---|---|---|
| UTE TXALAPARTA BERRIA – LA BRASA DE ABDEL – SALAH FARROUKH. | 1.000,00 | BAI / SI |
| PLASENCIA VINTAGE, S.L. | 529,00 | BAI / SI |
| GORKA TAVERN S.L. | 1.035,00 | BAI / SI |
| NÁUTICO BERRIA, S.L.U. | 1.103,25 | BAI / SI |

Lizitatzaileek aurkeztutako eskaintza ikusita, kontratazio-mahaiko kideek proposatu dute "RKE KAFETEGIA" IZENEKO UDAL-ERAIKINA USTIATZEKO ZERBITZUAREN EMAKIDA NAUTICO BERRIA SLU sozietateari (IFK: B-95919189) adjudikatzea.

Vistas las ofertas presentadas por los licitadores, los miembros que integraban la Mesa de Contratación propusieron adjudicar la CONCESION DE SERVICIO DE EXPLOTACION DEL EDIFICIO MUNICIPAL DENOMINADO "RKE KAFETEGIA" a la razón social "NÁUTICO BERRIA S.L.U." con CIF B-95919189.

Enpresak gaitasun- eta kaudimen-baldintzak eta legez eskatutako gainerakoak betetzen dituela egiaztatzeko agiriak aurkeztearen mende zegoen adjudikazio-proposamen hori.

Dicha propuesta de adjudicación quedaba supeditada a que el licitador aportase la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos de capacidad, solvencia y demás obligaciones legalmente exigidas.

Aipatutako adjudikazioa automatikoki ebaluatu beharreko irizpideen balorazioan lortutako baturaren arabera egiten da; balorazio taula hauetan zehaztu dira irizpide horiek:

La citada adjudicación se realizaba de acuerdo con la suma obtenida de la valoración de los criterios evaluables de forma automática que se detallan en los siguientes cuadros de valoración:

| ***LIZITATZAILEAK***<br><br>**LICITADORES** | ***IRIZPIDE AUTOMATIKOEN PUNTUAZIOA***<br>***100 puntu, gehienez***<br><br>**PUNTUACIÓN CRITERIOS AUTOMÁTICOS** |
|---|---|

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

| | Máximo 100 puntos | |
|---|---|---|
| | ***HILEROKO KANONA 95 puntu, gehienez***<br><br>**CANON MENSUAL Máximo 95 puntos** | ***MARKA-IRUDI BAT HARTZEKO KONPROMISOA 5 puntu, gehienez***<br><br>**COMPROMISO IMAGEN DE MARCA Máximo 5 puntos** |
| UTE TXALAPARTA BERRIA – LA BRASA DE ABDEL – SALAH FARROUKH. | 80,54 | 5 |
| PLASENCIA VINTAGE, S.L. | 14,57 | 5 |
| GORKA TAVERN S.L. | 85,44 | 5 |
| NÁUTICO BERRIA, S.L.U. | 95 | 5 |

***PUNTUAZIOA, GUZTIRA***

**PUNTUACIÓN TOTAL**

| ***LIZITATZAILEAK***<br><br>**LICITADORES** | ***PUNTUAZIOA, GUZTIRA 100 PUNTU***<br><br>**PUNTUACIÓN TOTAL 100 PUNTOS** |
|---|---|
| NAUTICO BERRIA, S.L.U. | 100 |
| GORKA TAVERN S.L. | 90,44 |
| UTE TXALAPARTA BERRIA – LA BRASA DE ABDEL – SALAH FARROUKH | 85,54 |
| PLASENCIA VINTAGE, S.L. | 19,57 |

BOSGARRENA.- 2020-07-09an NÁUTICO BERRIA SLU sozietat-izenari (IFK: B-95919189) jarraian adierazitakoak eskatu zitzaizkion, SPKLren 140. eta 150. artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako eta espedientean jasota erakundeak aipatutako baldintzak betetzeari buruzko frogagiriak:

a) Administrazioarekin kontratatzeko legeak ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

b) Zerga-betebeharrak eta

QUINTO.- En fecha 09/07/2020 se requiere a la razón social "NÁUTICO BERRIA S.L.U." con CIF B-95919189, a los efectos de lo dispuesto en los artículos 140 y 150 de la LCSP, constando en el expediente la correspondiente documentación justificativa de que la entidad referida cumple los requisitos recogidos en el citado precepto, a saber:

a) Documentación acreditativa de cumplir con las condiciones establecidas legalmente para contratar con la Administración.

Gizarte Segurantzarekiko dituen betebeharrak egunean izatea.

c) 2.647,80 euroko behin betiko bermea eratu izana, bai eta kopuru bereko, 2.647,80 euro, beste berme osagarri bat eratu izana ere.

b) Hallarse al corriente del cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

c) Haber constituido una garantía definitiva por importe de 2.647,80 euros y otra garantía complementaria por igual importe de 2.647,80 euros.

SEIGARRENA.- Adjudikaziodunak behin betiko bermea eratu zuen 2020-07-21ean, hain zuzen ere, 3/2020/1/003677 zenbakiduna eta 2.647,80 eurokoa, eta, data berean, kopuru bereko, 2.647,80 euro, beste berme osagarri bat eratu zuen, 3/2020/1/003678 zenbakiduna.

SEXTO.- La adjudicataria, con fecha 21/07/2020, constituye la garantía definitiva nº 3/2020/1/003677 por importe de 2.647,80 euros y en igual fecha y por el mismo importe de 2.647,80 euros constituye la garantía complementaria nº 3/2020/1/003678.

Aurreko egitatezko aurrekariei honako zuzenbideko oinarriak aplikatu behar zaizkie:

A los anteriores antecedentes de hecho son de aplicación los siguientes

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

FUNDAMENTOS DE DERECHO

I.- 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, azaroaren 8koa.

I.- La Ley 9/2017, de Contratos del Sector Público (LCSP), de 8 de noviembre.

II.- Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua; haren bidez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen aurka egiten ez duen guztian.

II.- Real Decreto 817/2009 de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público en lo que no se oponga a la LCSP.

III.- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua; haren bidez, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onetsi zen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen aurka egiten ez duen guztian.

III.- Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas en lo que no se oponga a la LCSP.

IV.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onetsiko testu bategina eta hari lotuta aplika daitezkeen gainerako

IV.- Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, Texto Refundido aprobado por R.D.L. 781/1.986, de 18 de abril y demás legislación conexa que resulte de



Getxo UDALA · AYUNTAMIENTO
Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

legeak.

ERABAKI-PROPOSAMENA:

LEHENENGOA: NÁUTICO BERRIA SLU (IFK: B-95919189) sozietate-izenari ADJUDIKATZEA "RKE KAFETEGIA" IZENEKO UDAL-ERAIKINA USTIATZEKO ZERBITZUAREN EMAKIDAren kontratua. Enpresa adjudikaziodunak 1.103,25 euroko hileko kanona ordaindu behar du (BEZik gabe), eta konpromisoa hartuko du "RKE KAFETEGIA" lokalaren ustiapen-markaren irudi bat erabiltzeko.

Kontratu honen iraupena 4 (LAU) URTEKOA izango da administrazio-kontratua sinatzen den unetik aurrera zenbatuta. Adjudikaziodunak eskatzen badu eta udalak egokitzat jotzen badu, kontratua behin luzatu ahal izango da 4 (LAU) urtez. Adjudikaziodunak kontratua amaitu baino gutxienez 6 (sei) hilabete lehenago eskatu beharko du luzapena, eta udalak kontratua amaitu baino 2 (bi) hilabete lehenago onartu beharko du.

BIGARRENA: Adjudikaziodunak, SPKLren 153.3. artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz, ezin izango ditu kontratuak formalizatu lizitatzaileei adjudikaziodunaren jakinarazpena bidaltzen zaienetik hamabost egun baliodun igaro arte.

Kontratazio-organoak adjudikaziodunari aginduko dio kontratuak Kontratazio Zerbitzuaren bulegoetan formalizatzeko (Foru kalea, 8), gehienez ere, bost eguneko epean, errekerimendua jasotzen duen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, aurreko paragrafoan adierazitako epea amaitu ondoren ez bada egin kontratua formalizatzea etetea dakarren errekurtsorik.

aplicación.

PROPUESTA DE ACUERDO:

PRIMERO: ADJUDICAR a la razón social "NÁUTICO BERRIA S.L.U.", con CIF B-95919189, el contrato de CONCESIÓN DE SERVICIO DE EXPLOTACIÓN DEL EDIFICIO MUNICIPAL DENOMINADO "RKE KAFETEGIA". El canon mensual a abonar por la empresa adjudicataria será de 1.103,25 euros (no sujeto a I.V.A.), comprometiéndose a la adopción de una imagen de marca de explotación del local "RKE KAFETEGIA".

La duración del presente contrato será de 4 (CUATRO) AÑOS desde la fecha de formalización del contrato administrativo. En caso de que el adjudicatario lo solicite y siempre que el Ayuntamiento lo considere oportuno podrá prorrogarse el contrato por una única prórroga de 4 (CUATRO) años. El adjudicatario deberá solicitar la prórroga del contrato con una antelación mínima de 6 (seis) meses antes de la finalización del contrato y el Ayuntamiento acordar la misma 2 (dos) meses antes de terminar el contrato.

SEGUNDO: El adjudicatario, de conformidad con lo indicado en el artículo 153.3 de la LCSP, no podrá formalizar el contrato antes de que transcurran quince días hábiles desde que se remita la notificación de la adjudicación a los licitadores.

El órgano de contratación requerirá al adjudicatario para que formalice los contratos en las oficinas del Servicio de Contratación, sitas en la calle Fueros nº 8, en un plazo no superior a cinco días a contar desde el siguiente a aquel en que hubiera recibido el requerimiento, una vez transcurrido el plazo previsto en el párrafo anterior sin que se hubiera interpuesto recurso que lleve aparejada

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

la suspensión de la formalización de los contratos.

HIRUGARRENA: Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzeari buruzko Eusko Legebiltzarraren 3/2016 Legearen 5.4. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, empresa adjudikaziodunak kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa BIZKAIKO OSTALARITZAREN HITZARMEN KOLEKTIBOA da.

TERCERO: De conformidad con lo dispuesto en el artículo 5.4 de la Ley del Parlamento Vasco 3/2016, para la inclusión de determinadas cláusulas sociales en la contratación, se indica que el convenio colectivo que la empresa adjudicataria declara aplicable a los trabajadores que realicen la actividad objeto del contrato es el CONVENIO COLECTIVO DE LA HOSTELERÍA DE BIZKAIA.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

Alvaro González
Nerea Guijarrubia
F. Javier Elorza
Ignacio Uriarte

**BOZKETA/VOTACIÓN**

BAI/SI: 19 (PVN, PP, PSE-EE)
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 5 (EH Bildu, Elkarrekin Podemos)

**109.- BIDEAK GARBITZEKO, HIRIKO HONDAKIN SOLIDOAK JASOTZEKO ETA GARRAIATZEKO, UDALEKO INGURUMEN-GUNEA BERRITZEKO ETA USTIATZEKO ETA ANTZEKO BESTE ZERBITZU BATZUK GAUZATZEKO ZERBITZU OROKORREN KONTRATUAREN LAGATZE PARTZIALA BAIMENTZEA.**

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz erabaki da:

Lehenengoa: bideak garbitzeko, hiriko hondakin solidoak jasotzeko eta garraiatzeko, udaleko ingurumen-gunea berritzeko eta ustiatzeko eta antzeko beste zerbitzu batzuk gauzatzeko zerbitzu orokorren kontratuaren lagatze partziala baimentzea. Lagatzea hontan datza: "Ansareo Servicios Integrales, S.L"

**109.- AUTORIZACIÓN DE LA CESIÓN PARCIAL DEL CONTRATO DE LOS SERVICIOS GENERALES DE LIMPIEZA VIARIA, RECOGIDA Y TRANSPORTE DE RESIDUOS SÓLIDOS URBANOS, RENOVACIÓN Y EXPLOTACIÓN DEL COMPLEJO MEDIOAMBIENTAL MUNICIPAL Y OTROS SERVICIOS AFINES.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas por mayoría se acuerda:

Primero: Autorizar la cesión parcial del contrato de los servicios generales de limpieza viaria, recogida y transporte de residuos sólidos urbanos, renovación y explotación del complejo medioambiental municipal y otros servicios afines. Dicha cesión consiste en que la empresa "Ansareo Servicios Integrales, S.L" (con C.I.F. B95975959)

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

enpresak (IFK B95975959), ABEE adjudikaziodunean duen %25eko partehartzea "Cespa, Gestión de Residuos, S.A." enpresari (IFK A59202861) lagatzen dio.

cede su participación del 25% en la UTE adjudicataria, a la empresa "Cespa, Gestión de Residuos, S.A." (con C.I.F. A59202861).

Lagapen horren ondorioz, oraindik aurrera ABEE adjudikazioduna ("UTE GETXO SERVICIOS URBANOS", IFK. U-95769873) empresa hauetaz egongo da osatuta:

Como consecuencia de la cesión antedicha, la U.T.E. adjudicataria del contrato ("UTE GETXO SERVICIOS URBANOS", con C.I.F. U-95769873) estará formada a partir de ahora por las siguientes empresas:

- "Cespa, Compañía española de residuos públicos auxiliares, S.A." (IFK A82741067)
- "Cespa, gestión de residuos, S.A." (IFK A59202861)

- "Cespa, Compañía española de residuos públicos auxiliares, S.A.", con C.I.F A82741067
- "Cespa, gestión de residuos, S.A.", con C.I.F. A59202861.

Bigarrena: Baimendutako lagapen hau eskritura publikoan formalizatzeko 15 egun naturaleko epea emango da.

Segundo: Conceder un plazo de 15 días naturales para la formalización en escritura pública de la cesión que se autoriza.

Aipatutako lagapenaren eskritura Foruen kaleko 8. zenbakian dauden Kontratazio Zerbitzuaren bulegoetan aurkeztu beharko da, 7 egun naturaleko epean, gehienez ere, hori egiten denetik zenbatzen hasita.

La citada escritura de cesión habrá de ser presentada en las oficinas del Servicio de Contratación, sitas en la calle fueros nº8, en el plazo máximo de 7 días naturales a contar desde su formalización.

Hirugarrena: Lagatzaileak bere egunean jarritako behin-betiko bermea bueltatzea, 917.954,92 €.

Tercero: Devolver la parte de la garantía definitiva en su día depositada por la cedente, y que asciende a la suma de 917.954,92 €.

Horretarako, eta kontuan izanik jendearentzako arretarako eguneko osasun-krisitik eratorritako ingurabar bereziak, honako dokumentazioa aurkeztu beharko du Udalaren Erregistro Orokorrean, Diruzaintza arloari zuzendutakoa:

A tal efecto, y habida cuenta de las circunstancias especiales de atención al público derivadas de la actual crisis sanitaria, deberá presentar por Registro General del Ayuntamiento la siguiente documentación dirigida al área de Tesorería:

Lege-ordezkaria joaten bada zuzenean:

Ordainketa gutun originala
Lege-ordezkariaren NANaren kopia
Ordezkaritza-ahalordearen kopia

Si acude directamente el representante legal:

Carta de Pago Original
Copia del DNI del representante legal.
Copia del poder de

representación.

Lege-ordezkaria ez den pertsona joaten bada:

Ordainketa gutun originala
Lege-ordezkariaren NANaren kopia
Ordezkaritza-ahalordearen kopia
Lege-ordezkariaren baimena bermea berreskuratzeko
Baimentzen den pertsonaren NANaren kopia.

Si acude persona distinta del representante legal:

Carta de Pago Original
Copia del DNI del representante legal.
Copia del poder de representación.
Autorización del representante legal para proceder a retirar la garantía.
Copia del DNI de la persona autorizada.

Eskabidea eta ekarritako dokumentazioa aztertu ondoren, Diruzaintza arloak interesatuari bidaliko dio bere egunean aurkeztutako abal originala.

Una vez revisada la solicitud y la documentación aportada, el Área de Tesorería procederá a remitir a la interesada el aval original presentado en su día.

Bestalde esan behar da bermea ez da itzuliko kontratuaren lagapen-hartzaileak, (“Cespa, gestión de residuos, S.A.”) udal diruzaintzan behin betiko bermea eratu arte, zenbateko berean. Gehienez zazpi egun naturaletan jarri beharko du bermea, ebazpen honen jakinarazpenetik aurrera zenbatuta. (Bermea eratzeko moduari buruz, lehen aipatu diren ingurabar bereziak kontuan izanik, Diruzaintzako departamenduarekin jarriko da harremanetan, eta hark emango dizkio nola egiteko argibideak)

Por otra parte indicar que la devolución no se hará efectiva en tanto la cesionaria (“Cespa, gestión de residuos, S.A.”), no deposite en la Tesorería municipal garantía definitiva por el mismo importe. Tal depósito deberá hacerse en el plazo máximo de siete días naturales a contar desde la notificación de la presente resolución. (En cuanto a la forma de realizar el depósito, y habida cuenta de las circunstancias especiales que antes se han citado, deberá ponerse en contacto con el Departamento de Tesorería, el cual dará las indicaciones de cómo proceder).

Laugarrena: Ebazpen hau bai ABEE adjudikaziodunari bai lagapen-hartzaileari Jakinaraztea.

Cuarto: Notificar la presente resolución tanto a la U.T.E adjudicataria como a la cesionaria del contrato.

Baita jakinaraziko zaie Kontuhartzailetza eta Diruzaintza departamenduei ere, jakin dezaten eta dagozkion lege-ondorioetarako.

Notificar así mismo la presente resolución al Departamento de Intervención y a la Tesorería municipal, para que tomen nota de la autorización de la cesión, a los efectos legales que procedan.



Getxo UDALA · AYUNTAMIENTO
Sinatua: Firmado: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

Getxo UDALA · AYUNTAMIENTO
Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

Alvaro González
Carolina Uribe
Nerea Guijarrubia
Joseba Arregui

**BOZKETA/VOTACIÓN**

BAI/SI: 14 (PNV, PSE-EE)
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 10 (PP, EH Bildu, Elkarrekin Podemos)

**110.- GETXOKO UDALEKO ETA ERAKUNDE AUTONOMOETAKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA, 2020-2023 ALDIA, ONESTEA.**

Herritargoko Informazio-Batzordeak proposatuta, gehiengoz erabaki da:

1.- Proposamen honekin batera aurkeztu den Getxoko Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2020-2023 denboraldiko diru-laguntzen plan estrategikoa izeneko dokumentua onestea, beraren edukiarekin batera, eta eranskinak:

- A1 eranskina.- 2020. urtea (irailaren 23a). Hemen, aribideko ekitaldiko aurrekontu-gordailuaren xehetasuna erakusten da, informazioa emateko asmoarekin.

- A.3 eranskina. Ildo estrategikoko fitxak planeko 17 ildo estrategikoetako bakoitzerako bat.

2.- Erabaki hau eta Getxoko udalaren eta bere Erakunde Autonomoen diru-laguntzen plan estrategikoa, 2020-2023 denboraldirako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Diru-laguntzen datu-base nazionalean eta udalaren webgunean argitaratzeko agintzea.

3.- Erabaki hau udal arlo guztiei eta erakunde autonomoei jakinaraztea.

**110.- APROBACION DEL PLAN ESTRATEGICO DE SUBVENCIONES 2020-2023 DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y SUS ORGANISMOS AUTONOMOS.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Ciudadanía, por mayoría se acuerda:

1º.- Aprobar el documento denominado Plan estrategico de subvenciones del Ayuntamiento de Getxo y sus Organismos Autonomos para el periodo 2020-2023, que se acompaña a la presente propuesta, y anexos:

- Anexo A1.- Año 2020 (23 septiembre) en el que se muestra a título informativo detalle de consignación presupuestaria del ejercicio en curso.

- Anexo A.3. Fichas de línea estratégica, una por cada una de las 17 líneas estratégicas del Plan.

2º.- Ordenar la publicación del presente Acuerdo así como del Plan estratégico de subvenciones del Ayuntamiento de Getxo y sus Organismos Autónomos para el periodo 2020-2023, en el Boletín Oficial de Bizkaia, la Base de datos nacional de subvenciones y en la página web municipal.

3º.- Comunicar el presente acuerdo a todas las áreas municipales, así como a los Organismos Autónomos.

Getxo UDALA · AYUNTAMIENTO
Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

Keltse Eiguren
Paula Amieva
Ibon Rodríguez
Carolina Uribe
Carmen Díaz
Eduardo Andrade
Ignacio Uriarte

**ZUZENKETEN BOZKETA/VOTACIÓN ENMIENDAS**

| ERREGISTRO ZKIA. | PROPOSAMEN TALDEA GRUPO PROPONENTE | BAI SI | EZ NO | ABSTENZIOAA ABSTENCIÓN |
|---|---|---|---|---|
| 24296 | EH Bildu | 5<br>EH Bildu, EP | 19<br>PNV, PP, PSE-EE | - |
| 24297 | EH Bildu | 5<br>EH Bildu, EP | 19<br>PNV, PP, PSE-EE<br>- | - |
| 24299 | EH Bildu | 3<br>EH Bildu | 19<br>PNV, PP, PSE-EE | 2<br>EP |
| 24300 | EH Bildu | 5<br>EH Bildu, EP | 19<br>PNV, PP, PSE-EE | - |
| 24301 | EH Bildu | 5<br>EH Bildu, EP | 14<br>PNV, PSE-EE | 5<br>PP |
| 24302 | EH Bildu | 5<br>EH Bildu, EP | 14<br>PNV, PSE-EE | 5<br>PP |
| 24304 | EH Bildu | 5<br>EH Bildu, EP | 19<br>PNV, PP, PSE-EE | - |
| 24306 | EH Bildu | 5<br>EH Bildu, EP | 19<br>PNV, PP, PSE-EE | - |
| 24307 | EH Bildu | 5<br>EH Bildu, EP | 19<br>PNV, PP, PSE-EE | - |
| 24308 | EH Bildu | 5<br>EH Bildu, EP | 19<br>PNV, PP, PSE-EE | - |
| 24359 | EH Bildu | 5<br>EH Bildu, EP | 14<br>PNV, PSE-EE | 5<br>PP |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 24360 | EH Bildu | 5<br>EH Bildu, EP | 14<br>PNV, PSE-EE | 5<br>PP |
| 24342 | E. Podemos | 5<br>EH Bildu, EP | 19<br>PNV, PP, PSE-EE | - |
| 24344 | E. Podemos | 5<br>EH Bildu, EP | 19<br>PNV, PP, PSE-EE | - |
| 24345 | E. Podemos | 5<br>EH Bildu, EP | 14<br>PNV, PSE-EE | 5<br>PP |
| 24346 | E. Podemos | 5<br>EH Bildu, EP | 14<br>PNV, PSE-EE | 5<br>PP |
| 24347 | E. Podemos | 5<br>EH Bildu, EP | 19<br>PNV, PP, PSE-EE | |
| 24350 | E. Podemos | 5<br>EH Bildu, EP | 14<br>PNV, PSE-EE | 5<br>PP |
| 24351 | E. Podemos | 5<br>EH Bildu, EP | 14<br>PNV, PSE-EE | 5<br>PP |
| 24353 | E. Podemos | 5<br>EH Bildu, EP | 19<br>PNV, PSE-EE | - |
| 24354 | E. Podemos | 5<br>EH Bildu, EP | 14<br>PNV, PSE-EE | 5<br>PP |
| 24355 | E. Podemos | 10<br>PP, EH Bildu, EP | 14<br>PVN, PSE-EE | - |
| 24356 | E. Podemos | 10<br>PP, EH Bildu, EP | 14<br>PNV, PSE-EE | - |
| 24357 | E. Podemos | 5<br>EH Bildu, EP | 14<br>PNV, PSE-EE | 5<br>PP |
| 24361 | E. Podemos | 5<br>EH Bildu, EP | 19<br>PNV, PP, PSE-EE | - |

**PROPOSAMENAREN BOZKETA/VOTACIÓN PROPUESTA**

BAI/SI: 19 (PNV, PP, PSE-EE)
EZ/NO: 5 (EH Bildu, Elkarrekin Podemos)

Ibon Rodríguezek saioa utzi du.

Ibon Rodríguez abandona la sesión.

## LURRALDEA

## TERRITORIO



Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

**111.- UDALAREN ONDASUN ETA ESKUBIDEEN 2019KO ABENDUAREN 21KO INBENTARIOAREN ZUZENKETA ONESTEA.**

Lurraldeko Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz erabaki da:

LEHENENGOA.- Getxoko Udalaren 2019ko abenduaren 31ko udal-inbentarioa onestea, erantsitako CDan azaltzen diren baldintzetan. Hona hemen inbentarioaren laburpen-koadroa:

**111.- APROBACIÓN DE LA RECTIFICACIÓN DEL INVENTARIO MUNICIPAL DE BIENES Y DERECHOS A FECHA 31.12.2019.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Territorio, por mayoría se acuerda:

PRIMERO.- Aprobar Inventario Municipal del Ayuntamiento de Getxo a fecha 31 de diciembre de 2019 en los términos expresados en el CD anexo y cuyo cuadro resumen es el siguiente:

| EPIGRAFEA / EPÍGRAFE | | ONDASUNEN KOPURUA / NÚMERO DE BIENES | BALIOA / VALOR |
|---|---|---|---|
| *1º* | *Higiezinak / Inmuebles(*)* | 412 | 256.668.445,29 |
| | *Azpiegitura publikoak / Infraestructuras Públicas(*)* | 2.182 | 79.193.350,05 |
| *2º* | *Eskubide errealak / Derechos Reales* | 39 | 80.268,08 |
| *3º* | *Altzari historikoak - artistikoak / Muebles histórico - artísticos* | 78 | 2.099.995,80 |
| *4º* | *Balio higigarriak / Valores mobiliarios* | 3 | 670.868,22 |
| | *Kredituak eta Eskubideak / Créditos y Derechos* | 204 | 5.205.475,09 |
| *5º* | *Ibilgailuak / Vehículos* | 57 | 1.093.445,44 |
| *6º* | *Aziendak / Semovientes* | 2022 | 0,00 |
| *7º* | *Altzariak eta tresnak / Mobiliario y enseres* | 11.858 | 3.599.195,59 |
| *8º* | *Horma-hilobiak / Nichos* | 5.739 | 0,00 |
| | *Eskubide errebertigarriak / Derechos revertibles(*)* | 828 | 0,00 |
| **TOTAL** | | **23.422** | **348.611.043,56** |

**** Udalaren lurzoru-ondarearen barruan dauden ondasunak sartu dira***
**** Incluye los bienes de PMS***
***** Eguneratu gabeko balioak***
*****Valores no actualizados***

BIGARRENA.- Estatuko administrazioei eta Bizkaiko Foru Aldundiari erabaki honen eta onetsi den inbentarioaren berri ematea.

SEGUNDO.- Dar traslado del presente acuerdo así como del Inventario que se aprueba a la Administraciones del Estado y a la Diputación Foral de Bizkaia.

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

HIRUGARRENA.- Alkatetza-udalburutzari ahalmena ematea erabaki hau betetzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

TERCERO.- Facultar a la Alcaldía-Presidencia para dictar cuantas disposiciones sean precisas en orden a la ejecución del presente acuerdo.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

Alvaro González

**BOZKETA/VOTACIÓN**

BAI/SI: 14 (PNV, PSE-EE)

ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 9 (PP, EH Bildu, Elkarrekin Podemos)

Ibon Rodríguez saiora sartu da.

Se incorpora Ibon Rodríguez a la sesión.

## UDAL ORGANOEN KONTROLA

## CONTROL DE LOS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN

### 112.- BOZERAMAILEEN BATZORDEAREN AKORDIOAREN BERRI EMATEA: ADIERAZPEN ASKATASUNAREN ALDE, UNAI ETXEBARRIARI ELKARTASUNA ADIERAZTEKO.

Alkatetzak proposamena eginda, Bozeramaileen Batzordeak 2020ko irailaren 7an egindako gehiengoz hartutako erabaki honen jakitun egon, talde guztien aldeko botoarekin, PP eta PSE-EE izan ezik, hauek arbuiatu baitzituzten:

"UNAI ETXEBARRIAREKIN ELKARTASUNA

Eskubide guztiak, guztiontzat. Adierazpen askatasuna

Getxoko Udalak elkartasuna adierazi nahi dio Unai Etxebarria getxoztarrari, mezudun kamiseta bat eramateagatik zigor latza jaso duen honetan. Ezin uler daiteke profesional bat, kasu honetan kirolaria, kaleratua izatea bere adierazpen askatasunerako

### 112.- DACIÓN DE CUENTA DEL ACUERDO DE JUNTA DE PORTAVOCES EN DEFENSA DE LA LIBERTAD DE EXPRESIÓN, EN SOLIDARIDAD CON UNAI ETXEBARRIA.

A propuesta de la Alcaldía quedaron enterados de la siguiente declaración institucional adoptada por la Junta de Portavoces celebrada el día 7 de septiembre de 2020, adoptado por mayoría, con el voto favorable de todos los grupos excepto el PP y el PSE-EE que mostraron su rechazo:

"SOLIDARIDAD CON UNAI ETXEBARRIA

Todos los derechos, para todos. Libertad de expresión

El Ayuntamiento de Getxo quiere mostrar su solidaridad con el getxoztarra Unai Etxebarria, castigado severamente únicamente por llevar una camiseta con un mensaje. No se puede entender que un profesional, en este caso deportista, sea despedido por

eskubidearen erabilera egiteagatik. Kaleratze hau eskubide urraketa larritzat jotzen du udal honek, bai eskubide zibilen planoan zein, kasu honetan, lan eskubideen planoan. Horrenbestez, edozein pertsonaren adierazpen askatasunerako eskubidea beti errespetatua izan dadin galdegiten dugu."

hacer uso de su derecho a la libertad de expresión. Este ayuntamiento considera este despido como una grave vulneración de derechos tanto en el plano de los derechos civiles como, en este caso, en el plano de los derechos laborales. Pedimos que se respete el derecho a la libertad de expresión de todo el mundo en todo momento."

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

Carmen Díaz
Nerea Guijarrubia
F.Javier Elorza
Ignacio Uriarte

**ANTOLAKUNTZA ETA KONTUAK**

**ORGANIZACIÓN Y CUENTAS**

**113.- CRISTINA ZAMORA CHUQUIGUANGA ANDREAK (EH BILDU) ZINEGOTZI KARGUARI UKO EGITEAREN BERRI JASOTZEA.**

**113.- TOMA DE CONOCIMIENTO DE LA RENUNCIA AL CARGO DE CONCEJALA DE DOÑA CRISTINA ZAMORA CHUQUIGUANGA (EH BILDU).**

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta:

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas:

1.- Cristina Zamora Chuquiguanga andreak udal honetako zinegotzi karguari uko egin ziola jakin zuten.

1.- Tomaron conocimiento de la renuncia presentada por doña Cristina Zamora Chuquiguanga al cargo de Concejal de este Ayuntamiento.

2.- Erabaki honen ziurtagiria Hauteskunde Batzorde Zentralari igortzea hautetsi izaeraren egiaztatze gutuna egin dezan

2.- Remitir certificación del presente acuerdo a la Junta Electoral Central para que proceda a expedir la credencial acreditativa de la condición de electo a favor del candidato/a que corresponda.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

Amaia Agirre
Paula Amieva
Carmen Díaz
Nerea Guijarrubia
Eduardo Andrade

**114.- 2578/2020 ZENBAKIDUN**

**114.- DACIÓN DE CUENTA DEL**



Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

**DEKRETUAREN BERRI EMATEA; DEKRETU HORI AURREKONTUA KREDITU-GAIKUNTZAREN BIDEZ ALDATZEARI BURUZKO 2752/2020 DEKRETUAREN BIDEZ ZUZENDU DA.**

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta:

Jakintun egon kreditua prestatzearen bidez egindako aurrekontu-aldaketaren Dekretu hau:

2578/2020 zenbakidun Dekretua, 2752/2020 zenbakidun Dekretuaren bidez zuzendua, 25.755,00 euroko zenbatekoarekin. 2020/05F kreditua gaitzea. 2020ko uztailaren 12an Eusko Jaurlaritzako hauteskundeetan parte hartzeagatik mahaikideei dietak ordaintzea.

**DECRETO Nº 2578/2020, RECTIFICADO POR DECRETO Nº 2752/2020, DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE HABILITACIÓN DE CRÉDITO.**

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas:

Quedaron enterados del siguiente decreto de modificación presupuestaria mediante habilitación de crédito:

Decreto nº 2578/2020, corregido por el Decreto nº 2752/2020, por un importe de 25.755,00 euros. Habilitación de crédito 2020/05F. Pago de dietas a miembros de mesa por su participación en las elecciones a Gobierno Vasco el 12 de julio de 2020.

**MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK**

**115.- PP ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ZUGAZARTE ETORBIDEKO BIDEGORRIA KENTZEA.**

Gehiengoz, honako mozio hau atzera bota da:

Udaleko gobernu-taldeak Zugatzarte etorbidean bi norabide dituen bidegorria jartzea erabaki zuen; Triangeluko bidegurutzetik –Portu Zaharrera eta Ereagara sarbidea ematen duena– Jose Luis de Ugarte kalearekin bat egiten duen bidegurutzeraino. Horren ondorioz, Zugatzarte etorbideko alde horretatik zirkulatzen ari diren ibilgailuentzako Bilboko norabideko bi erreietako bat kendu da.

Bidegorria, hasiera batean behin-behinekoa zena, uztailaren 10ean jarri

**MOCIONES E INTERPELACIONES**

**115.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/LA SUPRESIÓN DEL BIDEGORRI DE AVENIDA ZUGAZARTE.**

Por mayoría se rechaza la siguiente moción:

El equipo de gobierno del Ayuntamiento decidió la instalación de un bidegorri de doble sentido en la Avenida Zugazarte; desde el cruce Triángulo – que da acceso al Puerto Viejo y Ereaga- hasta la confluencia con la calle José Luis de Ugarte, lo que ha supuesto la supresión de uno de los dos carriles en dirección Bilbao para los vehículos que circulan por esa parte de Avenida Zugazarte.

El bidegorri, que en principio es provisional, se puso en funcionamiento



Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

zen abian erabiltzaileentzat. Gobernu-taldeak esan zuen proba gisa jarri zela eta ikusiko zela nola funtzionatzen zuen.

para los usuarios el 10 de julio. El equipo de gobierno afirmó que se puso a modo de prueba y se observaría cómo iba a funcionar.

Bi hilabete baino gehiago geroago, emaitza oso nabarmena da: bidegorria Zugatzarte etorbidean jartzeko erabakia benetako porrota izan da, hainbat arrazoirengatik:

Más de dos meses después el resultado es más que evidente: la decisión de instalar el bidegorri en la Avenida Zugazarte ha sido un auténtico fiasco por varios motivos:

Lehenik eta behin, bidegorriaren erabilera oso txikia izan da (eta Udal Talde Popularra eskuzabala ere izaten ari da, erabiltzen ari den jende kopurua ikusita egin dugun balorazio honekin).

En primer lugar la utilización del bidegorri ha sido mínima (y desde el Grupo Municipal Popular estamos siendo hasta generosos con la cantidad de personas que lo están utilizando).

Beste alde batetik, ibilgailuek asko erabiltzen duten bide batean errei bat kentzeak auto-ilara gehiago egotea eragin du. Eta ez gara ezer berririk adierazten ari auto-ilarak, behin uda amaituta, are ugariagoak izango direla esatean.

Por otra parte, el suprimir un carril en una vía muy transitada por vehículos ha supuesto que haya más atascos. Y no estamos descubriendo nada nuevo al afirmar que los atascos, una vez terminado el verano, van a ser aún más numerosos.

Azkenik, Udal Talde Popularra ados dago mugikortasun iraunkorraren aldeko alternatibak bilatzearekin, baina baldin eta zentzuzko alternatibak badira, hau da, garraiobideak bateragarri egitea ahalbidetuko duten alternatibarik badira.

Por último, desde el Grupo Municipal Popular estamos de acuerdo con la búsqueda de alternativas por la movilidad sostenible, pero alternativas razonables que hagan posible la compatibilización de los diferentes modos de transporte.

Horregatik guztiagatik, Udal Talde Popularrak honako ERABAKI-PROPOSAMEN HAU aurkezten du:

Por todo esto, el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente

PROPUESTA DE ACUERDO:

Lehenengoa: Getxoko Udalak lehenbailehen ken dezala Zugatzarte etorbideko bidegorria.

Primero: Que el Ayuntamiento de Getxo suprima el bidegorri de Avenida Zugazarte lo antes posible.

Bigarrena: honako mozio honen berri udal komunikabideetan ematea.

Segundo: Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

Gonzalo Zorrilla-Lequerica
Carolina Uribe

Gonzalo Ayo
Nerea Guijarrubia
Joseba Arregui

**BOZKETA/VOTACIÓN**
BAI/SI: 5 (PP)
EZ/NO: 19 (PNV, EH Bildu, PSE-EE, Elkarrekin Podemos)

**116.- PP ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: HERRITARRENTZAKO ARRETA BULEGOA (HAB).**

Gehiengoz, honako mozio hau atzera bota da:

Joan den uztaileko herritarrentzako informazio-batzordean, Udal Talde Popularrak udaletxeko egoitza nagusiko (Foru kalea, 1) herritarrentzako arreta-bulegoaren egoerari buruz galdetu zuenean, gobernu-taldeak ondokoa jakinarazi zuen: bulego hori udan itxi egiten zela eta irailean egoera hori berrikusiko zela.

Gaur egun, bulego hau itxita dagoela ikusi dugu, eta bizilagunak eraikin honetara agertzen direnean eta udal behargineі herritarrei arreta emateko bulegoaz galdetzen dietenean, Algortako Torrene kaleko bulegora edo Areetako Ogoño kaleko bulegora bideratzen dituztela ikusi dugu; horri dagokienez, eraikin horretan bertan dagoen bulego hori behin betiko itxita dagoela adierazten dute udal beharginok.

Era berean, Udalaren webgunean ikusten dugu herritarrentzako arreta-bulegoak Torrene kalean eta Ogoño kalean baino ez daudela.

Herritar guztiek eraikin hori Udalaren egoitza gisa identifikatzen dutenez, uste dugu gaur egun itxita dagoen herritarrentzako arreta-bulegoa

**116.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL POPULAR S/LA OFICINA DE ATENCIÓN CIUDADANA (OAC).**

Por mayoría se rechaza la siguiente moción:

En la pasada comisión informativa de ciudadanía del mes de Julio, a pregunta del Grupo Municipal Popular sobre la situación de la oficina de atención ciudadana en la sede principal del ayuntamiento (Calle Fueros, 1), se informó desde el equipo de gobierno que se procedía a su cierre en temporada estival y que en el mes de septiembre se revisaría esta situación.

A día de hoy hemos podido observar que esta oficina se encuentra cerrada y que cuando los vecinos se presentan en este edificio y preguntan a los empleados municipales por la oficina de atención ciudadana se les deriva a la de la calle Torrene en Algorta o a la de la calle Ogoño en Las Arenas, aclarándoles que esta oficina, sita en este mismo edificio, se encuentra cerrada definitivamente.

Así mismo en la página web del ayuntamiento nos encontramos con que las oficinas de atención ciudadana se encuentran únicamente en la calle Torrene y en la calle Ogoño.

Habida cuenta que toda la ciudadanía identifica como sede del ayuntamiento este edificio, entendemos que debe mantenerse la oficina de atención



Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

Getxo UDALA · AYUNTAMIENTO
Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

mantendu egin behar dela. Gainera, kontuan hartu behar dugu egoitza hori Udalerriaren erdigunean dagoela, eta inguruko eremu osoari eman diezaiokeela zerbitzua, gure bizilagunak beste auzo batzuetara joatera behartu gabe.

Gure betebeharra da bizilagunen eta Udalaren arteko komunikaziorik onena bermatzea. Alde horretatik, eraikin horretan bertan zegoen herritarrentzako arreta-bulegoa ixtea erabaki okerra dela begitantzen zaigu, eta herritarrek udal bizitzan parte hartzea oztopatzeko modu bat. Dela uste dugu.

Horregatik guztiagatik, Udal Talde Popularrak honako ERABAKI-PROPOSAMEN HAU aurkezten du:

Lehenengoa: Foru kaleko 1. zenbakiko eraikinean, Udalaren egoitza nagusian, zegoen Herritarrentzako Arreta Bulegoa berriro irekitzea.

Bigarrena: honako mozio honen berri udal komunikabideetan ematea.

ciudadana que se encuentra a día de hoy cerrada. Debemos considerar además que esta sede se encuentra en el centro del municipio pudiendo dar servicio a toda la zona circundante sin obligar a desplazarse a nuestros vecinos a otros barrios.

Es nuestro deber garantizar la mejor comunicación entre los vecinos y el ayuntamiento. En este sentido cerrar la oficina de atención ciudadana que se encontraba en este mismo edificio nos parece una equivocación y un manera de entorpecer la participación ciudadana en la vida municipal.

Por todo ello, el Grupo Municipal Popular presenta la siguiente

PROPUESTA DE ACUERDO:

Primero: La reapertura de la Oficina de Atención Ciudadana que se encontraba en el edifico de la calle Fueros 1, sede principal del Ayuntamiento.

Segundo: Que se informe de la presente moción en los medios de comunicación municipales.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

F.Javier Elorza
Paula Amieva
Carmen Díaz
Nerea Guijarrubia
Janire Ocio

**BOZKETA/VOTACIÓN**

BAI/SI: 10 (PP, EH Bildu, Elkarrekin Podemos)
EZ/NO: 14 (PNV, PSE-EE)

**117.- GETXO-EH BILDU ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: UDAL KONTRATETAKO LANGILEEN LAN ESKUBIDEEN ALDE.**

**117.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/ POR LOS DERECHOS LABORALES DE LOS TRABAJADORES DE LAS CONTRATAS MUNICIPALES.**

Gehiengoz, honako mozio hau atzera bota da:

Osasun krisi honen ondorioetako bat krisi ekonomikoa da, latza benetan, eta horri lotuta langabeziaren igoera. Gainera, krisi hau sistematikoak diren beste krisi batzuekin batu da eta beti bezala, oraingoan ere langileen bizkarrean ezarriko ditu ordainak.

Egoera honetan, behin eta berriro entzun dugu batera arraun egin behar dugula, guztion lanak eta borondateak batu, auzolana indartu behar dugula. Inor ez dugula atzean utziko entzun dugu han-hemenka, Madrileko gobernuari zein Gasteizko gobernuari. Udal honek bide horretan neurri batzuk hartu ditu, nabarmen hobetu daitezkeenak gure ustez, baina ez da hori oraingo eztabaida. Dendari eta autonomoak laguntzeko neurri batzuk hartu dira, gizarte laguntzak zabaldu dira eta euren baldintza batzuk leundu krisia pairatzen dutenei laguntzeko asmoarekin.

Oraindik gauza gehiago egin daitezke eta gure ustez egitera behartuta gaude. Udal honetan, eta bere menpe dauden Erakunde Autonomoetan, langile askok eta askok udal zerbitzuak garatu eta ematen dizkie getxoztarrei udal langileak izan gabe. Kontrata pribatu askoren menpe hainbat udal zerbitzu daude, eta getxoztarrentzat zerbitzu horiek posible egiten dituzten langileak ez dira udal langileak, ez behintzat legearen arabera eta udal gobernu honen arabera: lorezaintza eta hondakin zerbitzuetako langileak, tailerretako irakasleak, kirol monitoreak, etxez-etxeko laguntza zerbitzuko langileak, igogailuetako langileak, jagoleak, garbitzaileak eta

Por mayoría se rechaza la siguiente moción:

Una de las consecuencias de esta crisis sanitaria es la crisis económica, realmente severa, y ligada a ella el aumento del paro. Además, esta crisis se ha unido a otras crisis sistemáticas y, como siempre, los costes de esta crisis recaerán en los trabajadores.

En esta situación, hemos escuchado una y otra vez que tenemos que remar juntos, que hemos de aunar los esfuerzos y las voluntades de todos y todas, que tenemos que reforzar el trabajo comunitario. Hemos oído por activa y por pasiva por parte tanto del gobierno de Madrid como del gobierno de Vitoria que no se debe dejar a nadie atrás. En ese sentido, este Ayuntamiento ha tomado en una serie de medidas que creemos que son manifiestamente mejorables, pero no es ese el debate actual. Se han tomado algunas medidas para ayudar a comerciantes y autónomos, se han ampliado las ayudas sociales y suavizado algunas de sus condiciones con la intención de ayudar a quienes sufren la crisis.

Aún es posible hacer más cosas y creemos que estamos obligados a materializar todo eso. En este Ayuntamiento, y en los Organismos Autónomos que dependen de él, muchos trabajadores desarrollan y prestan servicios municipales a los getxoztarras sin ser trabajadores municipales. Existen muchas contratas privadas de las que dependen diversos servicios municipales, y los trabajadores que hacen posible estos servicios para los getxoztarras no son trabajadores municipales, al menos según la ley y según este gobierno municipal: se trata de personal de servicios de jardinería y gestión de residuos, profesores de talleres,



Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

abar. Langile hauen artean badaude nahikotxo “langile publiko ofizialak” ez bezala krisiaren kolpea jaso dutenak, aldi baterako enplegu-erregulazioa espedienteen (ERTE delakoaren) menpe egon direnak, soldata jaitsiera izan dutenak edota lan eskubideen urraketak izan dituztenak. Gure ustez, langile horiek guztiak, Udala eta Udalaren erakunde autonomo ezberdinentzat lan egiten dutenak, “udal” langileak dira eta, ondorioz, euren ongizate eta lan baldintzak neurri handi batean udal ardura dira, edo gutxienez udal agintarien kezken artean egon beharko lirateke.

monitores deportivos, personal de ayuda a domicilio, personal de ascensores, vigilantes, limpiadores, etc. Entre estos trabajadores hay bastantes que, a diferencia de los "empleados públicos oficiales", han sufrido el golpe de la crisis, han estado sometidos a expedientes de regulación temporal de empleo (ERTE), han sufrido una bajada salarial o han padecido vulneraciones en sus derechos laborales. Entendemos que todos estos trabajadores, que trabajan para el Ayuntamiento y los diferentes organismos autónomos del Ayuntamiento, son trabajadores "municipales" y, en consecuencia, sus condiciones de bienestar y sus condiciones laborales son en gran medida responsabilidad municipal, o al menos deberían estar entre las preocupaciones de las autoridades municipales.

Udal gobernuek eta udal erakunde autonomoetako presidenteek har ditzaketen erabaki askok langileen egoeretan eragina dute, bereziki kontratetako langileen egoeretan, eta, askotan, eta hau are larriagoa da, euren lan eskubidetan. Erabaki horiek erabat baztertu behar dira hori baita inor atzean ez uzteko biderik zuzenena hainbat kasutan.

Muchas de las decisiones que pueden adoptar los gobiernos municipales y los presidentes de los organismos autónomos municipales inciden en las situaciones de los trabajadores, especialmente en las situaciones de los trabajadores adscritos a las contratas señaladas y, muchas veces, y esto es aún más grave, en sus derechos laborales. Estas decisiones deben ser rechazadas de plano porque es el camino más directo para no dejar a nadie atrás en muchos de los casos a los que hemos hecho referencia.

Hori dela eta honako akordio hauek proposatzen dizkiogu osoko bilkura honi:

Por ello, proponemos a este Pleno Municipal la adopción de los siguientes acuerdos:

1-. Getxoko Udaleko osoko bilkurak udal eta erakunde autonomoetako langile guztien lana eskertu nahi du eta euren konpromiso eta profesionaltasuna balorean jartzen ditu. Aipamen berezia merezi dute udala eta erakunde autonomoetako kontratetako langileen lana eta konpromisoa hauek

1-. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo quiere agradecer la labor de todo el personal de los Ayuntamientos y Organismos Autónomos y pone en valor su compromiso y profesionalidad. Mención especial merece el trabajo y el compromiso de los trabajadores de las contratas municipales y de los

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

lan baldintza ahulagoak baitituzte.

2-. Getxoko udaleko osoko bilkurak bere eskura dauden tresna guztiak erabiliko ditu langile guztien, eta bereziki kontratetako langileen lan egoera bermatzeko eta lan eskubideen urraketa gerta ez dadin.

3-. Getxoko udaleko osoko bilkurak udal gobernuari eskatzen dio kontratetako langileen lan baldintzak eta eskubideen urraketa ekar ditzaketen neurri eta erabakiak ez ditzala hartu, ez udalean ez udal erakunde autonomoetan edo udalaren erabakien menpe dagoen edozein erakundetan.

4-. Getxoko udaleko osoko bilkurak udal gobernuari eskatzen dio kontratetako langileen lan baldintzak eta lan eskubideak bermatzeko aldera, eskura dituen neurri guztiak har ditzala langileei eragin diezazkiekeen/ahal zaizkien kalteak murrizteko.

organismos autónomos, que presentan condiciones laborales más desfavorecidas.

2-. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo utilizará todos los instrumentos a su alcance para garantizar la situación laboral de todos los trabajadores y trabajadoras, y en particular de los trabajadores y trabajadoras de las contratas para evitar la vulneración de sus derechos laborales.

3-. El pleno del ayuntamiento de Getxo insta al gobierno municipal a que no adopte medidas y decisiones que puedan suponer una vulneración de las condiciones laborales y de los derechos del personal de las contratas, ni en el ayuntamiento ni en los organismos autónomos municipales o en cualquier organismo dependiente de las decisiones municipales.

4-. El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al gobierno municipal a que, con el fin de garantizar las condiciones laborales y los derechos laborales de los trabajadores de las contratas, adopte todas las medidas que estén a su alcance para reducir los daños que se pudieran ocasionar a dichos trabajadores.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

Ibon Rodríguez
Paula Amieva
Gonzalo Ayo
Alicia González del Valle
Alvaro González

**BOZKETA/VOTACIÓN**

BAI/SI: 5 (EH Bildu, Elkarrekin Podemos)
EZ/NO: 19 (PNV, PP, PSE-EE)

**118.- GETXO-EH BILDU ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: SAN NIKOLASEKO LUR AZPIKO**

**118.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/ EL FOMENTO DEL ALQUILER EN EL PARKING SUBTERRÁNEO DE SAN**

**APARKALEKUAN ALOKAIRUA SUSTATZEA.**

Gehiengoz, honako mozio hau onartu da:

Zazpi urte igaro dira Getxoko Udalak lur azpiko aparkalekua eraiki zuenetik Txiki Otaegi edo San Nikolas plazaren azpian. Obra horrek 3.500.000 euro baino gehiagoko inbertsioa izan zuen, eta hainbat urtez hankaz gora utzi zuen Algortako plaza, horrek inguruko auzokide, dendari eta ostalariengan sortu zituen kalte guztiekin. Plazaren itxura berriak ere hautsak harrotu zituen: kioskoa desagertu zen, "alde zahar" itxuraren galera ekarri zuen, nortasun gabeko plaza geratu zen, bankuak Amazonaseko "luxuzko" egurrarekin eraiki zituzten... Hori guztia, noski, alboan eraikitako Muxikebarri eraikinak izan dituen arazo tekniko eta diru xahuketa guztiak kontuan hartu barik.

Halaber, plazaren azpian lur azpiko aparkalekua eraiki zuen Udalak. Inguruko herrietan autoak erdiguneetatik kanpo uzteko politikak sustatzen ari ziren bitartean, Getxoko Udalak erabaki zuen Algortako bihotzean aparkaleku bat eraikitzea, hots, kotxearen erabilera sustatzea. Horrek, bada, Algortako mugikortasun politiken etorkizuna hipotekatu zuen, zailtzen duelako gaur egun Algortako erdigunean oinezkoentzako guneak zabaltzea eta autoen joan-etorriei mugak ezartzea.

Hori gutxi balitz, argi geratu da auzokideek ez dutela interes handirik erakutsi aparkaleku horretan leku bat erosteko aukerarekin. 2013. urtean libre zeuden 105 lekuetatik, 15 leku saldu ziren. Zazpi urte igaro dira, eta ez dirudi aparkalekuak arrakasta handirik

**NICOLÁS.**

Por mayoría se aprueba la siguiente moción:

Han transcurrido siete años desde que el Ayuntamiento de Getxo construyera el aparcamiento subterráneo bajo la plaza Txiki Otaegi o plaza San Nicolás. Una obra que tuvo una inversión de más de 3.500.000 euros y que durante años dejó patas arriba la plaza de Algorta, con todos los perjuicios que ello generó en vecinos, tenderos y hosteleros de la zona. El nuevo aspecto de la plaza también trajo consecuencias negativas: desapareció el quiosco, supuso la pérdida de la apariencia de "casco viejo", la plaza perdió personalidad, los bancos fueron construidos con madera de "lujo" del Amazonas... Todo ello, sin tener en cuenta todos los problemas técnicos y económicos que ha tenido el edificio Muxikebarri construido al lado.

Asimismo, el Ayuntamiento construyó un aparcamiento subterráneo bajo la plaza. Mientras en localidades cercanas se promovían políticas para dejar los vehículos fuera de los centros, el Ayuntamiento de Getxo decidió construir un aparcamiento en el corazón de Algorta, es decir, fomentar el uso del coche. De esta manera, se hipotecó el futuro de las políticas de movilidad de Algorta, porque aquella decisión dificulta que hoy en día se puedan ampliar las zonas peatonales en el centro de Algorta y establecer límites a los desplazamientos de coches.

Por si todo esto fuera poco, resulta evidente que los vecinos no han mostrado mucho interés en la posibilidad de adquirir una plaza en dicho aparcamiento. En 2013 se vendieron 15 plazas de las 105 disponibles. Han transcurrido siete



Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

lortu duenik. Ekaineko Lurralde batzordean? EH Bildutik galdetu genuen zein zen aparkaleku horren egoera, eta Udal Gobernuak azaldu zuen 16 leku bakarrik saldu direla. Hau da, zazpi urtetan leku bakar bat gehiago saldu da. Gainontzeko lekuei dagokionez, 17 leku Musika Eskolako irakasleek erabiltzen dituzte, eta beste bat udal langile batek. Orotara, 69 leku libre daude gaur egun.

años y no parece que el aparcamiento haya tenido mucho éxito. En la comisión territorial de junio desde EH Bildu preguntamos cuál era la situación de este aparcamiento, y el Gobierno municipal explicó que sólo se han vendido 16 plazas. Es decir, en siete años se ha vendido una única plaza más. En cuanto al resto de plazas, 17 son utilizadas por profesores de la Escuela de Música y otra por un trabajador municipal. En total, actualmente hay 69 plazas libres.

Datuak begiratzea besterik ez dago ikusteko aparkaleku honen kudeaketa negargarria izan dela ondorioztatzeko: plaza txikitu, dirua alferrik xahutu, autoen erabilera herrien erdigunean sustatu... eta dena, gainera, auzokide edo bisitariek erabiltzen ez duten azpiegitura bat egiteko. Aipatu barik, gainera, aparkalekuak ere arazo teknikoak dituela, bere sarbide bakarrak trafikoan arazoak sortu eta erabilera berriak bilatzea zailtzen duelako.

No hay más que mirar los datos para ver que la gestión de este aparcamiento ha sido nefasta, para concluir que se ha destrozado la plaza, se ha despilfarrado dinero, se ha fomentado el uso de los vehículos en el centro de los pueblos... y todo, además, para hacer una infraestructura que los vecinos o visitantes no utilizan. Sin mencionar que, además, el aparcamiento también tiene problemas técnicos, ya que su único acceso genera problemas en el tráfico y dificulta la búsqueda de nuevos usos.

Argi dago, beraz, EH Bildutik hainbat kritika egin ahal dizkiogula proiektu honi, eta Udal Gobernuak autokritika egin beharko lukeela azpiegitura honen kudeaketagatik. Baina errealitatea da, aparkaleku hau eraikita dugula jada, inbertsioa eginda dagoela, eta gaur egun erabilera barik jarraitzen duela. Urteak igaro dira eta Udal Gobernutik ez da planteamendu berririk egin azpiegitura honentzat eta bada momentua konponbideak bilatzeko eta ahal den neurrian, aurretik egindako okerrak konpontzen saiatzeko.

Es evidente, por tanto, que desde EH Bildu podemos hacer una serie de críticas a este proyecto, y que el Gobierno Municipal debería hacer autocrítica por la gestión de esta infraestructura. Pero la realidad es que, en la actualidad este aparcamiento ya se encuentra construido, la inversión está hecha, y a día de hoy sigue sin uso. Han pasado los años y desde el Gobierno Municipal no se ha hecho ningún nuevo planteamiento para esta infraestructura. Es el momento de buscar soluciones e intentar, en la medida de lo posible, solucionar los errores cometidos anteriormente.

Aparkalekua Algorta erdigunean dagoela ikusita, EH Bildutik ez dugu babesten bertan sistema rotatorioa ezartzea, horrek autoen joan-etorria

Atendiendo a que el aparcamiento está en el centro de Algorta, desde EH Bildu no apoyamos la implantación de un sistema rotatorio en el mismo, porque

bultzatuko lukeelako Algortako etorbidean, eta trafikoan arazoak sortuko liratekeelako aparkalekuaren sarbide bakarrean. Ikusita erosteko baldintzek ez dutela auzokideen interesa piztu, EH Bildutik proposatzen dugu epe laburrerako alokairu-sistema ere ezartzea, hori auzokideentzat interesgarriagoa izan daitekeelakoan. Hau da, hilabeteko edo urtebeteko alokairu-sistema ere eskaintzea egoiliarrentzat.

eso favorecería el tránsito de vehículos en la avenida de Algorta y se generarían problemas en el tráfico en el único acceso al aparcamiento. Visto que las condiciones de compra no han despertado el interés de los vecinos, desde EH Bildu proponemos que se establezca también un sistema de alquiler a corto plazo, por considerar que esto puede ser más interesante para los vecinos. Es decir, ofrecer también un sistema de alquiler de un mes o un año para los residentes.

Horixe da, hain zuzen ere, osoko bilkurari proposatzen diogun akordio proposamena:

En concreto, la propuesta de acuerdo que planteamos al pleno municipal es la siguiente:

1.- Getxoko Udalak beharrezkoak diren izapideak egingo ditu San Nikolas plazaren azpian dagoen lur azpiko aparkalekuan epe laburreko (hilabete edo urtebeterako) alokairu sozialaren sistema ezartzeko.

1.- El Ayuntamiento de Getxo realizará los trámites necesarios para la implantación del sistema de alquiler social a corto plazo (por un mes o un año) en el aparcamiento subterráneo situado bajo la plaza San Nicolás.

**<u>PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES</u>**

Nerea Guijarrubia
Carolina Uribe
Carmen Díaz
Eduardo Andrade
Alvaro González

**<u>BOZKETA/VOTACIÓN</u>**

BAI/SI: 5 (EH Bildu, Elkarrekin Podemos)
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 19 (PNV, PP, PSE-EE)

**<u>119.- ELKARREKIN PODEMOS UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GETXOKO GARBIKETA-EREDUAN PARTE HARTZEKO PROZESUA.</u>**

**<u>119.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL ELKARREKIN PODEMOS S/ EL PROCESO PARTICIPATIVO EN EL MODELO DE LIMPIEZA EN GETXO.</u>**

Gehiengoz, honako mozio hau atzera bota da:

Por mayoría se rechaza la siguiente moción:

Zeharo aparteko egoera bizitzen ari gara, eta egoera horrek oraindik hilabete batzuk iraungo duela

Nos encontramos en un momento excepcional, que se augura durará aún varios meses y al que debemos



Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

Getxo UDALA · AYUNTAMIENTO
Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

aurreikusten da. Horrenbestez, egoera horri egokitu beharra daukagu. Pandemia hau ikasgai asko ematen ari zaigu, eta uste dugu horietatik ikasketarik onenak atera behar ditugula. Getxon badakigu garbiketaren eta zabor-bilketaren gaiak nolabaiteko eztabaida sortzen duela, eta, gainera, herritarren artean kexa asko pizten dituela, bai horrelakorik ez dagoelako, bai eredua ez zaielako guztiz egokitzen jendeak adierazten dituen beharrei.

adaptarnos. Esta pandemia nos está dando muchas lecciones de las cuales creemos que debemos sacar los mejores aprendizajes. En Getxo sabemos que el tema de la limpieza y la recogida de basuras crea cierta controversia y que además, entre la ciudadanía, levanta muchas quejas bien por falta de la misma, bien porque el modelo no se adapta del todo a las necesidades expresadas por la gente.

Horrezaz gainera, ikusten badugu birus berri honekin inoiz baino beharrezkoagoa dela garbitasun-neurriak zorrozkiro gauzatzea espazio publiko guztietan, bai irekietan bai itxietan, ikusten dugu unea dela hori guztia elkarrekin hausnartzeko eta berriro aztertzeko, egungo ereduari doakionez herritarron nahiak kontuan hartuz. Une historikoa ere bada, Getxoko zabor-bilketaren kontratua epe laburrean amaituko delako, eta gure udalerrian garrantzi handieneko kontratua delako, bai horretara xedaturik dagoen aurrekontuagatik, bai herritarren eguneroko bizimoduan duen eraginagatik. Ez dugu ahaztu behar, gainera, lurralde mailan Bizkaiko Uri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integrala (BUHKPI) berritzea eta eguneratzea planteatzen ari dela, pla horretan Getxon neurri handi batean eragina izango duen hiri-hondakinak kudeatzeko eredua jasotzen baita.

Si además nos fijamos en que es más necesario que nunca con este nuevo virus extremar la limpieza en todos los espacios públicos, tanto abiertos como cerrados, vemos que es el momento de repensar y de reflexionar de manera conjunta y teniendo en cuenta a la ciudadanía sobre el modelo actual. También se nos presenta un momento histórico, porque el contrato de la recogida de basuras en Getxo finalizará a corto plazo y se trata del contrato de mayor importancia en nuestro municipio, tanto por el presupuesto destinado al mismo como por la incidencia en la vida diaria de la ciudadanía. No debemos olvidar que además, a nivel de territorio, se está planteando ya la renovación y actualización del PIGRUB, que contiene el modelo de gestión de residuos urbanos que nos afectará en gran medida a Getxo.

Uste dugu garaiz gabiltzala, eta une egokia dela partaidetza-prozesu inklusiboa, zeharkakoa, diziplina anitzekoa eta hainbat fasetakoa planteatzeko. Prozesu horrek gure kaleen garbitasuna nola hobetu hausnartzen lagunduko digu, bai eta herritarrek zerbitzu handi horiek COVID-19arekin bizi dugun egoera berriari egokitzeko beharrezkoak diren aldaketen inguruan duten iritzia

Creemos que estamos a tiempo, y que es el momento adecuado, para plantear un proceso participativo inclusivo, transversal, multidisciplinar, con diversas fases y que nos ayude a repensar cómo mejorar tanto en la limpieza de nuestras calles como para conocer la opinión de la ciudadanía sobre cuáles creen que son los necesarios cambios para adaptar estos grandes servicios a la nueva situación

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

ezagutzen ere. Gure esku dago herritarrak ahalik eta hobekien babestea, eta ez bakarrik erantzukizun indibiduala eta kolektiboa eskatzea; hain zuzen ere, arlo zehatz honetan iritzi publikoa kontuan hartuko duten eta zerbitzuak pandemia honek ekarri dituen eskakizun berriei egokitzen lagunduko duten politika publikoak abian jarri behar ditugu.

Horregatik guztiagatik, Elkarrekin Podemosek honako ERABAKI-PROPOSAMEN hau aurkezten dio Getxoko Udaleko Osoko Bilkurari:

1. Getxoko Udalak konpromisoa hartzen du partaidetza-prozesu zabal, zeharkako eta lotesle bat abian jartzeko, gizarte-kolektiboen nahiak eta eskariak kontuan hartuta, gaur egun Getxon dugun zabor-bilketako ereduari buruz denok batera eta elkarrekin eztabaidatu eta hausnartze aldera, zabor-bilketari dagokion hurrengo kontratua hobetzeko eta pandemiak sortutako egoera berriari egokitzeko asmoz.

2. Getxoko Udalak gure kaleen garbitasunari buruzko galderak eta eztabaidak sartuko ditu prozesu horretan, iradokizunak eta hobetzeko proposamenak jasotzeko eta, horrela, zerbitzu publiko hori gure auzo guztietan orekatu eta egokitzeko.

que todos y todas estamos viviendo con la COVID-19. Está en nuestra mano proteger de la mejor forma posible a la ciudadanía y no solo solicitar responsabilidad individual y colectiva, sino que debemos poner en marcha políticas públicas que tengan en cuenta la opinión pública y ayuden a adaptar los servicios a las nuevas exigencias que ha traído esta pandemia.

Por todo lo expuesto, desde Elkarrekin Podemos elevamos al Pleno del Ayuntamiento de Getxo la siguiente

PROPUESTA DE ACUERDO:

1. El Ayuntamiento de Getxo se compromete a poner en marcha un proceso participativo amplio, transversal y vinculante, teniendo en cuenta a colectivos sociales, para debatir y reflexionar de manera conjunta sobre el modelo de recogida de basuras que actualmente tenemos en Getxo, con el objetivo de mejorar y adaptar el próximo contrato a la nueva situación creada por la pandemia.

2. El Ayuntamiento de Getxo incluirá en dicho proceso preguntas y debates sobre el estado de limpieza de nuestras calles para recoger sugerencias y propuestas de mejora, y así equilibrar y adaptar este servicio público en todos nuestros barrios.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

Paula Amieva
Carmen Díaz
Itxaso Maseda
F.Javier Elorza
Joseba Arregui

**BOZKETA/VOTACIÓN**

BAI/SI: 5 (EH Bildu, Elkarrekin Podemos)
EZ/NO: 14 (PNV, PSE-EE)
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 5 (PP)

Getxo UDALA · AYUNTAMIENTO
Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

**120.- ELKARREKIN PODEMOS UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GETXON BIZIKLETEN ETA PATINETEEN ERABILERA SUSTATZEA.**

Gehiengoz, honako mozio hau atzera bota da:

Udal honek, jakina denez, bat egin du Mugikortasun Iraunkorraren Europako Astearekin, informazio- eta dibulgazio-kanpaina baten bidez. Getxoko Elkarrekin Podemos taldekideok ekimen hau baloratzen dugu, baina uste dugu ezen, Ingurumenaren arloko zinegotzigoa egiten ari den lanarekin eta Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Planean ezarririk dagoenarekin bat etorriz, bizikletaren eta mugikortasun iraunkorraren alorreko beste baliabide batzuen erabilera gehiago sustatu behar dela, eta are gehiago gaur egun. Egungo egoera sozio-sanitarioaren aurrean, garraio iraunkorraren erabilera sustatzea ez da soilik beharrizan jakin bat, guztiontzako aukera bat baizik, Udal honetan ere adostasun zabala baitago bizikleta eta patinetea egungo pandemia geldiarazteko garraiobide pribilegiatutzat hartzeko, bai eta klima-aldaketak eta kutsadurak eragiten dituzten arazo guztiak geldiarazteko ere.

Hori dela eta, mozio honetan neurri zehatz eta errealistak proposatzen ditugu, bizikletaren eta patinetearen erabilera bultzatzeaz gain, Getxoko saltoki txikiei laguntzeko ere balioko dutenak.

Getxotik mugikortasun iraunkorra eta segurua bultzatu nahi badugu, hots, kerik, zaratarik eta karbono-emisiorik gabeko mugikortasuna sustatu gura badugu, eta aire garbiagoa eta osasungarriagoa duen Udalerri baten

**120.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL ELKARREKIN PODEMOS S/ POTENCIAR EL USO DE BICICLETAS Y PATINETES EN GETXO.**

Por mayoría se rechaza la siguiente moción:

Este Ayuntamiento, como no podía ser de otra manera, se ha sumado a la Semana Europea de la Movilidad Sostenible mediante una campaña informativa y divulgativa. Desde Elkarrekin Getxo valoramos esta iniciativa pero creemos que, en línea con el trabajo que se está realizando desde la Concejalía de Medio Ambiente y el Plan de Movilidad Urbana Sostenible, debemos insistir en la necesidad de potenciar en mayor medida el uso de la bicicleta y de otros medios de movilidad sostenibles, más aún si cabe en los tiempos que vivimos. Ante la coyuntura socio sanitaria actual, potenciar el uso del transporte sostenible no es solo una necesidad, es una oportunidad dado que existe un amplio consenso, también en este consistorio, en reconocer la bicicleta y el patinete como medios de transporte privilegiados para frenar la actual pandemia, así como los problemas derivados del cambio climático y la contaminación.

Por ello, proponemos en esta moción una batería de medidas concretas y realistas, que además de impulsar el uso de la bicicleta y el patinete, servirán para apoyar al pequeño comercio getxotarra.

Si desde Getxo queremos impulsar una movilidad sostenible y segura, libre de humos, de ruido y baja en emisiones de carbono y por un municipio con aire más limpio y saludable, además de contribuir a alcanzar los objetivos de

Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

alde egin nahi badugu, garapen iraunkorraren helburuak erdiesten laguntzeaz gain, bizikleta eta patinetea mugikortasun iraunkorrerako beste bitarteko batzuen artean erabiltzearen aldeko apustu irmoa eta etengabea egin beharko dugu.

desarrollo sostenible, tendrá que ser haciendo una apuesta decidida y constante por el uso de la bicicleta y el patinete entre otros medios de movilidad sostenible.

Horregatik guztiagatik, honako ERABAKI-PROPOSAMEN hau aurkezten diogu Getxoko Udaleko Osoko Bilkurari:

Por todo lo anterior, elevamos al Pleno del Ayuntamiento de Getxo la siguiente

PROPUESTA DE ACUERDO:

1. Getxoko Udalak bizikletaren eta patinetearen erabilera bultzatuko du, bizikletak eta patineteak erosteko, konpontzeko eta mantentzeko laguntza zuzenak emango dituen Ibilgailu Eraginkorretarako Pizgarrien Plan bat (IEPP) diseinatuz eta abian jarriz, Bizikletaren aldeko Hirien Sarearen gomendioekin bat etorriz, Bilbon, Bartzelonan eta Europako beste hiri batzuetan arrakastaz egiten ari den bezala.

1. EL Ayuntamiento de Getxo potenciará el uso de la bicicleta y el patinete mediante el diseño y puesta en marcha de un plan PIVE con ayudas directas para la compra, reparación y mantenimiento de bicicletas y patinetes, en línea con las recomendaciones de la Red de Ciudades por la Bicicleta, y como ya se está haciendo de manera exitosa en Bilbao, Barcelona y otras ciudades europeas.

2. Getxoko Udalak konpromisoa hartzen du gainerako garraio kolektiboekiko intermodalitatea erraztu eta indartze aldera, garraio kolektibootan bizikleta igotzeko murrizketak gutxitzeko eta Getxobizi deritzon mailegu-sistema garraio kolektiboko tituluekin (Metro Bilbao, Bizkaibus) integratzeko, tarifen arloari doakionez.

2. El Ayuntamiento de Getxo se compromete a facilitar y reforzar la intermodalidad con el resto de modos de transporte colectivo, instando a la reducción de las restricciones a subir la bici en los mismos y facilitando la integración tarifaria del sistema de préstamo Getxobizi con los títulos de transporte colectivo (Metro Bilbao, Bizkaibus).

3. Getxoko Udalak konpromisoa hartzen du bere eskumenen barruan lan egiteko, inguruko udalerriekin eta/edo Bizkaiko Foru Aldundiarekin beharrezkoak diren akordioak bilatzeko eta Getxobiziko bizikleta publikoak udal-perimetrotik kanpo ere erabil daitezen sustatzeko.

3. El Ayuntamiento de Getxo se compromete a trabajar dentro de sus competencias para buscar los acuerdos que sean necesarios con los municipios vecinos y/o la Diputación de Bizkaia para promover que las bicicletas públicas de Getxobizi se puedan usar también fuera del perímetro municipal.

4. Getxoko Udalak, bere eskumenen barruan, ondoko konpromiso hau hartzen du: Udalerriko metro-geltoki guztietan bizikleten eta patineteen

4. El Ayuntamiento de Getxo se compromete a trabajar dentro de sus competencias para promover la puesta en marcha de parkings de bicicletas y

aparkalekuak abian jartzea, horien guztien erabilera garraio publikoarekin konbinatu ahal izateko.

patinetes en todas las estaciones de metro del municipio que permitan combinar el uso de estos con el transporte público.

**PARTE-HARTZAILEAK/INTERVINIENTES**

Carolina Uribe
Gonzalo Ayo
Itxaso Maseda
Eduardo Andrade
Joseba Arregui

**BOZKETA/VOTACIÓN**

BAI/SI: 5 (EH Bildu, Elkarrekin Podemos)
EZ/NO: 14 (PNV, PSE-EE)
ABSTENTZIOA/ABSTENCIÓN: 5 (PP)

14: 10ean, alkateak osoko bilkura eten du, bilkura-aretoa aireztatu ahal izateko.

Siendo las 14:10 horas la Alcaldesa suspende el pleno para que se pueda airear el salón de sesiones.

14:20an ekin zaio berriro bilkurari.

Siendo las 14:20 horas se reanuda la sesión.

**GALDE-ESKEAK**

Paula Amievak galdetu du GetxoBerrin hainbat elkarte eta kolektibok bidalitako informazioa argitaratzeko iritziei buruz, eta galdetu du kolektibo batek bere eskaera ukatuta ikusi duelako.

Alkateak erantzun du ez duela informazio zehatzik planteatutako kasuari buruz, baina bildu eta erantzun egingo diola. Halaber, adierazi du, kolektiboek GetxoBerrin sarbidea dutela beren informazioa helarazteko.

**RUEGOS Y PREGUNTAS**

Paula Amieva pregunta sobre los cirterios de publicación en GetxoBerri de información remitida por diferentes asociaciones y colectivos, formula la pregunta porque un colectivo ha visto denegada su petición.

La Alcaldesa contesta que no dispone de información concreta sobre el caso planteado pero que la recabará y le contestará. Indica asimismo que, en principio, los colectivos tiene acceso a GetxoBerri para trasladar su información.

**HERRITARREN GALDERAK**

Idazkari nagusiak galderak irakurtzen ditu, eta alkateak erantzun ditu. Galdera hauek egin dituzte:

Jesús Urrutia Oleagak, Andra Mari

**PREGUNTAS DE LA CIUDADANÍA**

El Secretario General da lectura a preguntas, que son respondidas por la Alcaldesa, formuladas por:

Jesús Urrutia Oleaga, en



Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

Getxo
Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020

Gure Lurra elkartearen ordezkari gisa, galdetu dio ea noiz jar daitekeen ikusgai HAPOren berrikuspenaren hasierako onarpenaren dokumentua, eta ea azalpen-hitzaldietan hori emango duten hasierako onarpenaren ondoren, pandemia kontuan hartuta auzotarrak bertaratzeko alternatibak pentsatu diren.

representación de la Asociación Andra Mari Gure Lurra, sobre la posible fecha de exposición del documento de aprobación inicial de la revisión del PGOU y si en las charlas explicativas qu ese darán a continuación de la aprobación inicial, teniendo en cuenta la pandemia existente se han pensado alternativas a la asistencia presencial de los vecinos.

Isabel Trevijanok, Iraide Garrasek, Silvia de la Cruzek, Mercedes Gabilondok, Estela Pliegok, Miren Isasik, Begoña Mijangosek, Jesús Gonzálezek, Nerea Azkorrak, Javier Ruizek, Paloma Yaguek, Antonia Amezek, Mª Angeles Líbanok, Marta Aranak, Elisa Gonzálezek, María Lópezek eta Susana Cuadrak galdetu dute zergatik eten den Faduran kirol-ikastaroak ematea, baina horrek ez du esan nahi aurrez aurreko sistema online bidez ordeztu denik, ezta ikastaroak ematen zituzten langileen egoera dela-eta ere.

Isabel Trevijano, Iraide Garras, Silvia de la Cruz, Mercedes Gabilondo, Estela Pliego, Miren Isasi, Begoña Mijangos, Jesús González, Nerea Azkorra, Javier Ruiz, Paloma Yague, Antonia Amez, Mª Angeles Líbano, Marta Arana, Elisa González, María López y Susana Cuadra, preguntan acerca de las razones por las cuales se han suspendido la impartición de cursos deportivos en Fadura sin que se haya producido ninguna sustitución del sistema presencial por online y asímismo por la situación en la que quedan los trabajadores que impartían los cursos.

Marga Bravok eta Gotzon Alkaldek galdetu dute zergatik proposatu duten presoen senideei laguntzak kentzea sakabanaketa-politikak eragindako urruneko lekuetara egindako bisiten gastuei aurre egiteko.

Marga Bravo y Gotzon Alkalde preguntan por las razones que han llevado a proponer la supresión de ayudas a familiares de presos para hacer frente a los gastos derivados de las visitas a lugares lejanos motivado por la política de dispersión.

Eta beste aztergairik ez zegoenez, Alkateak bilera amaitutzat eman zuen egun horretako 14:40ean.

Y no habiendo otros asuntos que tratar, la Alcaldesa levantó la sesión siendo las 14 horas y 40 minutos de este día.

Saio honen laburpena transkribatu da, eta bideo-akta sistema baten bidez audobisual euskarrian egindako grabazioaren osotasuna bermatzen duen ondorengo aztarna elektroknikoa

*SHA512 - 11beda745013fecd4fa6c7dcd85a66663c5*

De esta sesión, cuyo extracto se ha transcrito, y de la grabación en soporte audovisual realizada mediante un sistema de video-acta, con la siguiente huella electrónica que garantiza la integridad de la grabación:

*SHA512 - 11beda745013fecd4fa6c7dcd85a66663c5*

***e97b263fe14de05aec3f6218ec7f6de3af5f0888aa68c3f0c7e1a74b67f4c575a3ff9152894637bc2aa24ba47ed57***, nik Idazkari Nagusiak eta Alkateak nirekin sinatuz, horren guztiaren fede ematen dut.

***e97b263fe14de05aec3f6218ec7f6de3af5f0888aa68c3f0c7e1a74b67f4c575a3ff9152894637bc2aa24ba47ed57***, como Secretario General y firmando la Alcaldesa en unión mía, doy fe.

*Ikus-entzunezko artxiboa Getxoko Udalaren bideotekara joz kontsulta daiteke, esteka honetan:*

*El archivo audiovisual puede consultarse accediendo a la videoteca del ayuntamiento de Getxo en el siguiente enlace:*

http://getxo.seneca.tv/s/3GipviW455m4C6OkQ54cgWGQKrdrghZ1



Getxo UDALA • AYUNTAMIENTO
Sinatua: Ignacio J. Etxebarria Etxeita (Idazkari Nagusia/Secretario General) Data: 2020/11/04 Fecha: 04/11/2020
Firmado: Amaia Aguirre Muñoa (Alkatea/Alcaldesa) Data: 2020/11/05 Fecha: 05/11/2020